# TXEKOR-JATEAREKIN BATERA FESTA

170 lagun inguru bilduko dira bihar, Baliarrainen egingo duten txekor-jatean; ekitaldi ugari izango dira › 2

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

**Osteguna**
**2009-04-30**

VII.URTEA 1.689.ZENBAKIA
**ESKUALDEKO EGUNKARIA**

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Anoetako hainbat gaztek egin zuten urteurreneko egitarauaren aurkezpena, herenegun. I. GARCIA

# HAMARGARREN URTEURRENA BEHAR BEZALA OSPATZEKO

**ANOETA** Herriko Gaztetxeak 10 urte betetzen ditu aurten, eta hori dela eta, egitarau «anitza eta oparoa» antolatu dute maiatzerako 4

## Iurreamendiko Zuzendaritza Batzordearen aukeraketa airean

**TOLOSA** Aurkeztutako bost elkartetatik kanpoan geratu dira hiru, «baldintzak ez betetzeagatik» 3



Leitzako mugarriak ezagutzeko mendi irteera egin zuten. HITZA

## Mugarriak eta Plazaola ezagutzera emateko ekimenak

**LEITZA** Hitzaldia eta mendi irteera egin dituzte, eta ekimen gehiago ere antolatu dituzte 7

### Patxi Urizar izan da txapelduna Euskadiko Distantzia Luzeko Duatloian

**VILLABONA** Hirugarren aldiz jarraian izan da Urizar irabazlea 2

### Angel Unzu zuzenean entzuteko aukera izango da gaur iluntzean, Aranburun

**TOLOSA** 20:00etan hasiko da gitarra jotzailearen kontzertua 3

### Eusko Jaurlaritzak AHTren Tolosaldeko lanen eskaintza onartu du

**AZPIEGITURAK** 3.791 metroko luzera izango du ibilbideak, gehiena tunelen bitartez 5



# Urteroko txekor-jatearekin batera zer ikusi izango da bihar herrian

**Baliarrain »** 170 lagun elkartuko dira pilotalekuan bazkaltzeko; erakusketak eta loreak erosteko aukera izango da goizean zehar.

**NEREA URBIZU**

Maiatzaren bata iristearekin batera, Baliarrainen Jai Batzordeak txekor-jatea antolatu du berriz ere. Aurten 170 lagun elkartuko dira bertako frontoian, txekorra dastatzeko besteak beste.

Gaur 21:00ak aldera, txekorra prestatzen hasiko dira, hau da; duela egun batzuk hilda dagoenez, bertan ireki eta lotuko dute, erretzen hasteko. Bi lagun izango dira, orduerdiro gutxi, gorabehera bueltak emateko. Herritarrak bi orduz egongo dira txekorrarekin; 23:00etan beste bi herritar egongo dira, eta 01:00etan beste bi. Horrela igandera arte.

Emakume talde bat arratsaldean entsalada prestatzen hasiko dira beste gauza askoren artean.



Herritarrek ikastaroetan egindakoak ikusi ahal izango dira. IBON AZPILIKUETA

12:00ak inguruan, lore azoka egongo da urtero igotzen den Aramako Urretabizkaia lore etxearen eskutik. Horretaz gain, erakusketa ere jarriko dute, eskulan tailerrean parte hartu duten baliarraindarren lanekin.

Txorixo egosia, txekorra entsaladarekin eta pastela izango dute 170 bazkaltiarrek bihar. Bakoitzak 25 euro ordaindu behar izan du eta aurten, diru hori, herriko gimnasioan berrikuntzak egiteko erabiliko dute.

Bereziki bihar, Baliarraingo etxeak besteetan baino ederrago-ak egongo dira, askok bihar, han dauden lore postuko landareak erosten dituztelako. Mereziko du igotzeak...

# Euskadiko Distantzia Luzeko Duatloian, Patxi Urizar berriro txapeldun

**ERREDAKZIOA**

Patxi Urizar billabonatarrak irabazi du Euskadiko distantzia luzeko duatloi txapelketa. Arrigorriagako XII. duatloian erabaki zen txapelketa eta bertan, Urizarrek bigarren postua eskuratu zuen. Beste behin, billabonatarra hirugarren aldiz jarraian izan da txapelduna.

Proba bera azkarrago Endika Garzia (Lagunak-Nafarroa) lasartearrak egin zuen (2:51:01), baina Nafarroako federazioan izena emanda dagoenez, ez zen Euskadiko Txapelketaren sailkapenean sartu. Honenbestez, Urizarrena da txapela. Billabonatarrak 15 segundo gehiago behar izan zituen proba bukatzeko.

Honetan zetzan joan den larunbateko duatloi proba: 14 km korrikan, 57 km bizikletan eta 7km korrikan berriz ere egin behar izan zuten. Guztira, 200 parte-hartzaile baino gehiago izan ziren. Arratsalde hotza eta euritsua izan zen, eta honek proba gogortu egin zuen.




Aurtengo Larraizko larre irekiera iragartzeko kartela. E. MAIZ

# Bihar Larraitzen, XII. Larre irekiera

**ERREDAKZIOA**

Larraizko larre irekiera izango da bihar, hamabigarren urtez. Urtero bezala, azoka, bitxikeriak, zein erakustaldiak izango dira Larraitzen, goizean hasita.

Aurten 19.000 aberetik gora igoko dira Aralarrera, uda bertan pasatzera. Baina biharkoa ez da egun egokiena animaliak Aralarren sartzen direla ikusteko, izan ere, «hainbeste jende dago, hauek izutu egiten direla. Baina egun bat jarri behar izaten da larre irekiera iragartzeko, eta maiatzaren bata da. Maiatzaren 2an edo 3an gehiago igotzen dira».

Egun honekin batera eta Enirio-Aralar Mankomunitatearen 600. urteurrena dela kontuan izanik, harrespila bat inauguratuko dute, Guillermo Olmok egindakoa, hain zuzen ere. 16 harri diferente dira, bakoitzak mankomunitateko herri bat irudikatuz. Azkena Nafarroa izango litzateke. Hau guztia 12:00etan izango da, Larraizko aparkalekuaren inguruan.

Mieltxo Saralegi harri-jasotzailearen saioa izango da ere eta Antziko harria altxatzen saiatuko da kasu honetan. 140 kilo pixatzen du, baina traketsa da, heltzeko leku finkorik ez duena.

# Laskorain korua, Bartzelonara

**JOXEMI SAIZAR**

Laskorain Abesbatzak Bartzelonan abestuko du etzi bertako Els Picarols abesbatzarekin batera. Lehendik ere abesbatzak beste elkartruke batzuk egin ditu (Erroma, Bartzelona, Valentzia, Xixon) abeslariak motibatzeko eta beste taldeak ezagutzeko. Oraingo honetan Els Picarols abesbatzarekin harremanetan jarri da. Gracia auzoko El Cercle kultur elkartean integratuta dagoen abesbatza da, 9 eta 16 urte arteko 26 abeslariz osatua eta bere zuzendaria Laia Jornet da.

Maiatzeko zubia aprobetxatuz, Laskorain abesbatza bihar bertan, abiatuko da Tolosatik eta igandean itzuliko da. Oraingo honetan handien taldeko (10-13 urte) 34 abeslari joango dira Bartzelonara Naiara Mintegia zuzendaria eta beste irakasle batzuekin batera. Kontzertua etzi izango da, 19:00etan, El Cercle antzokian (Santa Magdalena 12, Gracia). Beste egunak entsegatzeko, Bartzelonako leku eta monumentu garrantzitsuenak ezagutzeko eta bertako abeslarien familiekin egoteko aprobetxatuko dute. Kataluniarrak ekainaren bukaeran etorriko dira Tolosara, bisita itzuliz.



Laskorain abesbatzako 35 ikasle joango dira Bartzelonara. HITZA

**Bertako etxeetan lo egiten**

Tolosaldeko 34 abeslari gaztetxoek Bartzelonakoen etxeetan egingo dute lo: ilusio handiarekin doaz hemendik. Bertan eskainiko dituzten kantuak hauek dira: *Loriak udan intza bezala*, *The lyon´s sleeps tonight*, *Dubula*, *Kanon umorez*, *Titanic*, *Adoramus te* eta katalanez abestuko duten *La canço de las bananes*.

## Hilberriak eta urteurrenak

**ARANTZAZU GOROSTIDI UGARTE**

Ezagutu zaitugunok
ez zaitugu inoiz ahaztuko
Arantzazu

**Abaltzisketako amatxo eta aitatxo koadrila eta lagunak**

**ABALTZISKETA**
2009ko
apirilaren 30a

**JOXE MARI BALEZTENA MONAKO**

Une gogor hauetan
saminarekin bat
egiten dugu

**Leitzako Erleta eskolako ikasle, irakasle, guraso eta gainerako langileak**

**LEITZA**
2009ko
apirilaren 30a



3. urteurrena
**MARIA OTEGI GARMENDIA**



Hiru urte egunerokotasun nahian,
zure hutsunea ezin betean.
MAITE ZAITUGU

Urteurreneko meza bihar, ostirala,
goizeko 10:00etan izango da Zumarragako
Andre Mari Jasokundeko parrokian.

**ZUMARRAGA**
2009ko
apirilaren 30a

# Desadostasunak, Iurreamendiko Zuzendaritza Batzordeko aukeraketan


Gerontologiko berria eraiki ostean «jaioko» den plaza berriari Alondegi izena jartzea erabaki dute. HITZA

**Politika** » Aurkeztutako bost elkartetatik hiru aukeraketatik kanpo geratu ziren, «baldintzak betetzen ez zituztelako».

ESTI EZEIZA

Udalaren Ohiko Osoko Bilkura izan zen herenegun. Bertan, aurreko aktak alkatetza dekretuak onartzea gain beste lau gai eztabaidatu ziren.

Bilkurako hirugarren zatian, Udalbatzak Tolosako herri elkarteetako bi ordezkari aukeratu zituen Iurreamendi Egoitzako Zuzendaritza batzordea osatzeko. Izan ere, indarrean den erreglamendu batek zehazten du nola aukeratuko diren Egoitzako Zuzendaritza Batzordeko kideak, eta honen arabera, kideetako bi Osoko Bilkura batean onartuko dira.

Prozedurari jarraiki, bost elkartek eman zuten izena eta hauen balorazio bat egin du Udalak. Jokin Bildarratz alkateak azaldutakoaren arabera, «bost horietatik hiruk ez zituzten erreglamentuan agertzen ziren baldintza guztiak betetzen, izan ere, ez zeuden Udaleko errejistroan elkarte bezala izena emanda». Hala, onartutakoak Xebe Peña Fundazioa eta Amarotz Auzo elkartea izan ziren. Bestalde, kanpoan geratutako elkarteetako bat Zahartzaro duina plataforma izan zen. Ondorioz, bertako kideak desadostasuna agertu zuten astearteko bilkuran, Udalbatzaren erabakiarekin eta orohar, aukeraketa prozesuarekin. Amarotz auzo elkarteko zenbait kide ere bilkuran izan ziren eta hauek, gaia mahai gainean uzteko eskatu zuten. Eskaera hau babestu zuten EB-Aralarrekoek eta hautetsi independentistek.

Alderdi politikoetako eta elkarteetako kideek beraien iritziak plazaratu ostean, EAJ, EA, PSE-EE eta PPko zinegotziek aho batez erabaki zuten, hasieran aipatutako bi elkarteen esku uztea ordezkaritza. Honen aurrean, Amarotz Auzo elkartekoak azaldu zuen, beraien ustetan, izena eman zuten bost taldeek, kontsentsu bidez aukeratu behar zituztela bi ordezkariak, eta ez Udalbatzak. Hala, denek aukera berdinak ez zituztenez, agertu zuten, elkarteko zuzendaritzak erabaki zuela, beraien hautagaitza atzera botatzea.

### Alondegi plaza

Gerontologiko berria amaitzean, plaza berri bat izango da bertan, eta honen izena zein izango den atzoko Osoko Bilkuran erabaki zuten. Euskara batzordeak egindako proposamena, hau da Alondegi plaza bezala izendatzearena aho batez onartu zuten udal ordezkariek. Bestalde, toki horretan aurkitzen zen ur eta argi zentrala gogoratzeko, eta omentzeko, aurrera begira oroigarri bat jartzea proposatu eta adostu zuten.

### EB-Aralarrek Tolosa UEMAn sartzeko aurkeztutako mozioa

Ezker Batua Aralar alderdiak mozio bat aurkeztu zuen eskatuz, Tolosa UEMAn sartzeko. Honetarako hiru arrazoi eman zituen. Alde batetik, ikuspegi soziala. Beraien ustetan, euskararen etorkizuna bermatzeko, erabilera sozialean, hau da kalean, nagusi izan behar baitu. Hala, UEMAn sartzeak, antzeko egoeran dauden beste herri batzuekin elkarlanean aritzeko aukera emango baitio. Beste arrazoietako bat Tolosa bera dela iritzi dute. Mankomunitate honek zerbitzuak ematen baitizkie bere kideei euskararen normalizazioaren alorrean. Azkenik, Tolosaldea aipatu zuten. UEMA Euskal Herriko 50 herrik osatzen dute eta horietako 15 eskualdekoak dira. Tolosa, eskualdeko buru da, eta euskara zerbitzuen alorrean ere horrela izan beharko lukeela defendatzen dute EB-Aralarrekoek.

Mozio honen alde aurkeztu ziren hautetsi independentistak eta Eusko Alkartasunakoak, babesa emanaz. Alderantziz, EAJkoek eta PSOEkoek, egun Udalak duen euskara zerbitzua nahikotzat jotzen zutela agertu zuten, eta ekonomikoki UEMAn sartzeak suposatzen duen gastuari une honetan ezin diotela aurre egin, azaldu. Hala, mozioa ez zen onartua izan.

# Angel Unzu zuzenean entzuteko aukera izango da gaur iluntzean

**Kultura** » Aranburu Jauregian, Arsuagaren erakusketa kokatuta dagoen aretoan, izango da emanaldia, 20:00etan.

ERREDAKZIOA

Angel Unzu musikariaren bakarkako saioa izango da gaur Aranburu Jauregian. Mariano Arsuagaren erakusketa kokatuta dagoen aretoetako batean izango da gitarra emanaldia, 20:00etan.


Angel Unzu musikaria zuzenean entzuteko aukera izango da gaur. HITZA

Unzu Euskal Herriko gitarrajotzaile eta konposatzailerik esanguratsuenetako bat da. Musikari bezala, hainbat zuzeneko zein grabaketatan hartu du parte, hala nola, Ganbara, Kepa Junkera edota Benito Lertxundirekin. Bere eskutik etorri dira, era berean, azken garaiko diskorik garrantzitsuenetako ekoizpenak ere.

Duela urte batzuk, bere kontzertuen gidaritza emateko beharrak bultzatuta, erabaki zuen bakarka bere lanak aurkeztea. Hala, berak bakarrik egindako lan horrek, estilo oso berezi eta pertsonala aurkitzera eraman du. Gitarra jotzaile klasiko bezala hasi bazen ere, denborarekin, estilo pertsonal eta berritzailea garatu du. Jazzera gerturatzen den musika egiten du, baina folk ukituak ere baditu zenbait kantutan.

Bakarka bi disko kaleratu ditu orain arte: *13 Solos* eta *Melodias de Piel*. Hala ere, 80 diskotan hartu du parte, batzuetan interprete gisa, eta beste batzuetan, konponketak eginez, edo ekoizle gisa.

Angel Unzuk bere kontzertuetan gitarra klasikoarekin eta akustikoarekin egiten dakiena erakusten du. Kontrasteen bitartez, publikoaren arreta bereganatzea lortzen du. Konposaketa leun, intimo, epel eta batzutan, garratzak egiten ditu, bere gaitasun interpretatiboen tamainakoak. Bestalde, Unzuren zuzenekoetan, batzuetan , isiltasuna bera da protagonismoa hartzen duena, baina hau sokei egindako laztanekin apurtzen da. Baita, instrumentuaren gainean emandako kolpeekin, joku dinamiko bat sortuz.

## Evin Insight eta Hiverlan taldeek amaiera emango diote apirilari, Bonberenean

**Musika** » Andoaingo bi talde hauek entzuteko aukera izango da gaur; bihar berriz, Gose eta Sagarroi ariko dira.

ERREDAKZIOA

Apirilari amaiera emateko erritmo biziak izango dira nagusi Bonberenean. Horretarako, bi talde gonbidatu dituzte. Hala, gaur 22:30etik aurrera Hiverlan eta Evin Insight entzuteko aukera izango da. Bi talde hauek Andoaindik datoz beraien maketa berria besazpian dutela. Andoaingo hauek beraien Rock erritmoak ezagutzera emango dituzte.

Bestetik, bihar, Gose eta Sagarroi taldeak izango dira taula gainean. Gose Arrasaten sortutako hirukotea da eta «gogo handiz» datoz «kontzertu on bat eskaintzera». Sagarroikoak, bestalde, beraien azken diskoa aurkeztera etorriko da. Honi *Haikua* jarri diote izena, eta tolosarrei erakusketara datoz.

## Telefonoak

**Larrialdiak.** ((112))

**OSASUNA.**
**Alegialdea.** Osasun z.: 943 653212
**Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 943 65 23 39
**Asteasu.** Medikua: 943 692423
**Baliarrain.** Medikua: 943 889003
**Berastegi-Elduain**. Medikua: 943 683361
**Bidegoian.** Medikua: 943 681134
**Ibarraldea**. Osasun etxea: 943 672411
**Ikaztegieta.** Medikua: 943 653329
**Irura.** Osasun zentroa: 943 690720
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800
**Orendain**. Medikua: 943 655595
**Orexa.** Medikua: 943 682228
**Tolosa.**
**Anbulatorioa, larriald:** 943 461111
**San Esteban:** 943 006800
**Gernikako arbola:** 943 006900
**Amarozko dispen.:** 943 672637
**Asuncion klinika:** 943 675799 - 943 67 53 90 (larrialdiak)
**DYA:** 943 672536
**Gurutze Gorria:** 943 674888
**Villabona.** Anbulat.: 943 006970
**Zizurkil.** Aiztondo zerb: 943 693930
**GARRAIOAK.**
**Renfe:** 902 24 02 02
**Donostiako autobusa:** 943 361740
**Tolosaldea bus:** 943 650621
**Leitzaran autob.:** 948 221015
**Taxia:** 943 670420
**Taxia (Leitza):** 608 873016
**BESTERIK.**
**Ertzaintza:** 943 538820
**Tolosa-Udaltzaingoa:** 943 675858
**Tolargi:** 943 650016
**Iurramendi egoitza:** 943 670325
**Tolosa gasa:** 943 675320
**Alkoholiko anonimoak:** 943 248474

# Dena prest igandeko XVII. Ibilaldi Neurturako

**Berastegi »** 28 kilometroko ibilbidea da eta egunean bertan ere eman daiteke izena abiapuntuan.

REBEKA CALVO

Berastegiko Basurde Kirol Elkarteak prest du guztia igandean izango den XVII. Ibilaldi Neurturako. Elkarteko Inaxio Zubillagak esandakoaren arabera, «oraindik ez du jende gehiegik izena eman. Seguru jendeak igandean egingo duen eguraldia ikusi nahi duela partehartu edo ez erabakitzeko». Iaz 300 bat pertsonek hartu zuten parte, «baina 14 orduak ziren eta askok prestakuntza moduan hartu zuten gure ibilaldia», argitu du Zubillagak.

Aurtengoan orain bi urtetatik adostutako ibilbidea egingo dute, hau da, 07:00etan aterako dira herriko plazatik eta hortik, besteak beste, Urepel, Mandoegi, Abadegurutze, Ipuliño eta San Lorentzoko gainak igaroko dituzte «bertatik ikusten den paraje zoragarriekin gozatzeko» aukera ere izango delarik. Aurtengo berrikuntza, gainera, horixe da, «Urepeleko tontorrera iritsiko direla partehartzaileak, leheno bidezidor batetik pasatzen baitziren». Ibilbidea gutxienez sei ordu t'erditakoa da eta gehienez 8 ordutakoa. Ibilbidean bost kontrol egongo dira: plazan, Urepelen, Mandoegin, Ipuliñon eta San Lorentzon. Helduez gain, haurrak ere atera ohi dira ibilaldian.

Parte-hartzaile guztiek jasoko dute diploma bat.



Iazko edizioan 300 bat pertsonek hartu zuten parte ibilaldian. HITZA



Autobusa Ibaigainen dago eta larunbata izango da ikusteko azken eguna. R. CALVO

# Batzar Nagusiak hobeto ezagutuz

**Ibarra »** Gipuzkoako Batzar Nagusietako 'Gipuzkoa oinarri, Gipuzkoa helburu' kanpainaren barruko ekimena da.

ERREDAKZIOA

Gaur eta larunbata, maiatzak 2, dira Gipuzkoako Batzar Nagusiek Ibarran jarri duten gela didaktikoa bisitatzeko azken egunak. Gela didaktikoa *Gipuzkoa oinarri, Gipuzkoa helburu* kanpainahezigarriaren barruan kokatzen da eta aipatu egunetan bisitatu ahal da 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 19:30era, horretarako 902 109 156 telefonora deitu behar delarik.

Kanpaina ibiltaria da eta horregatik kokatu dute gela didaktikoa autobus batean. Ekimen honekin «Gipuzkoako Batzar Nagusiek betetzen duten papera eta gizartean duten funtzioa ume, gazte nahiz helduengana» gerturatu nahi dute. Era berean, «Batzar Nagusien erakunde nahiz ordezkariei buruzko informazioa modu erakargarri eta interesgarrian» emango dute.

Autobus birziklatuak ingurumen babesteko irizpide zorrotzenak betetzen ditu. 25 pertsonari harrera egiteko 40 metro koadro ditu eta ezinduei sarrera errezteko sarbidea ere badu. Gelan talde bakoitzari moldatutako 50 minutuko iraupena izango duten saioak ematen dituzte.

## Iragarki laburrak

**LANA**

- **Zainketa.** Emakume euskalduna eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko. 665 720 426.
- **Bigi garbitasunak.** Alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe 638 944 604 (Irene) edo 695 708 271 (Itsaso) telefonoetara.

# 2.000 ikusle inguru izan ziren Ñañarrin

ERREDAKZIOA

Larunbateko II. Ñañarri rallyesprinta «positiboki» baloratu du Irurako Ikastolak. Lasterketa ikastolak antolatu zuen Sardara Eskudeariaren laguntzarekin batera.

Proban 82 pilotuk hartu zuten parte beraien kopilotuekin batera, orainarteko parte-hartzaile kopuru altuenetakoa, eta Euskal Herriko txapelketarako eta baita Nafarrokorako ere puntuagarria izanik, pilotu ezagunenak ere bertan egon zirela esan dute antolatzaileek. Parte hartu zuten 82etik, 64ek bukatu zituzten hiru txandak. Egindako euriaren ondorioz, errepidea irristakorra zegoen eta batek baina gehiagok ere sustoren bat izan zuen, baina kolpe txiki hauetaz gain ez zen bestelako ustekabekorik egon. Hau dela eta, hiru txandak elkarren jarraian izan ziren, inongo atzerapenik gabe.

Egunaz gozatzeko asmoz, 2.000 ikusle inguru bertaratu zirela ere esan dute antolatzaileek. Era berean, Irurako Ikastolak laguntzen aritu ziren boluntarioei eskerrak eman nahi dizkie, hauen guztien laguntzarik gabe «ezingo baitlitzateke horrelako probarik antolatu». Udalei, babesleei eta modu batean edo bestean laguntza eman duten guztiei ere eskerrak eman nahi dizkie ikastolak.



# Zizurkilgo aktore txikien txanda da

**ZIZURKIL** ● Aktore profesionalak alde batera utzita, Pedro Mari Otaño eta San Millan ikastetxeetako ikasleak izan ziren atzo protagonista Zizurkil-Villabonako Antzerki Jardunaldietan. Atxulondo Kultur Etxeko eszenatoki gainetik igaro ziren gaztetxoak antzerki labur batzuk interpretatuz eta ikaskideen txaloak entzunaz. Saioekin jarraituz, gaur, 11:00etan, Trapu Zaharrak taldearen *Lehiaketa* lana ikusgai izango da Villabonako Malkar Plazan (eguraldi txarra egiten badu, Olaederra Kiroldegian izango da). E. EZEIZA

## Laburrak

### Egibar euskal presoaren aldeko elkarretaratzea

**ZIZURKIL** ● Orain lau egun Mikel Egibar zizurkildarrak eta Algeciraseko espetxean dauden beste euskal presoek gose greba hasi zuten bertako espetxezainek Elorrioko Arkaitz Bellon presoari emandako tratu txarra salatzeko. Zizurkileko presoari elkartasuna agertzeko elkarretaratzea egingo dute Zizurkil Gorako plazan bihar, 20:00etatik aurrera.

### Herriarteko Txapelketako hainbat partida zubian

**PILOTA** ● Maiatzeko zubiarekin batera Herriarteko Pilota Txapelketako hainbat partida orain jokatuko dituzte. Esaterako, gaur, Anoetak eta Azpeitiak jokatuko dute, 21:00etan hasita, Anoetan. Berastegik, Amezketa menderatu ondoren etxean jokatu beharko dute bihar, Hernanikoen aurka eta 11:00etan hasita. Asteasu bihar hasiko da Herriartekoan eta aurkaria Donostia izango da. Hauek Asteasun jokatuko dute 21:30ean. Lizartzak Astigarragaren kontra jokatu beharko du Astigarragan, etzi 17:30ean.

### Etxean jokatuko du partida ostiralean Lauburuk

**IBARRA** ● Ibarrako areto-futboleko Lauburu taldeak bihar jokatuko du Kantabriako Peñucas taldearen aurkako partida Belabieta kiroldegian 12:00etatik aurrera. Partida honetarako Txubel entrenatzaileak jokalari guztiak izango ditu eskura. Tolosako 28 Kanalak partida grabatuko du, gainera, eta Cesar Rocak, Txubelen aurretik Ibarrako taldearen entrenatzaile izandakoak, beteko du esatari lana Lauburuk berak eskatuta. Bestalde, denboraldiko azken partida Arnedon (Errioxa) izango da.

# Mugarriak eta Plazaola gertutik ezagutzeko aukera zabalik

**Leitza »** Herriko mugarriak ezagutzeko hitzaldia eta mendi irteera egin zuten asteburuan, ekimen gehiago ere egongo dira.

ASIER IMAZ

Leitzako inguruneak ezagutzeko aukerak ez dira amaitu. Iragan asteburuan herriko mugarrien inguruan bi ekimen burutu zituzten, baina ez dira azkenak izanen. Bestalde, Plazaola Partzuergo Turistikoak Natur Bidea gertutik ezagutzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu hilaren 3an eta 24ean Lekunberrin.

**Mugarriak non daude?**
Galdera honi erantzuna emateko asmoz Mendibil mendi taldeak, Aurrera Kirol Elkarteak eta Leitzako Kultur Taldeak mugarrien inguruko hitzaldia eta mendi irteera antolatu zuen iragan asteburuan.

Aurrera elkartean 15 lagun bildu ziren mugarrien hitzaldiaren inguruan. Bertan Joxe Migel Elosegi aritu zen hizketan eta ekitaldia «oso interesgarria» izan zen: «banan bana 7 herrirekin muga egiten duten mugarriak ikusi ahal izan genituen argazkitan. Honekin batera hainbat azalpen, kuriositate,...» eskaini omen zituen Elosegik.

Teoria ikusi eta ikasi ondoren, jakintza praktikan jarri zuten larunbatean. Goizean goiz herriko plazatik Kortekobordara habiatu ziren 15 lagun. Partaideen esanetan giroa lagun izan ez baldin bazuten ere gustura ibili ziren: «Hitzaldiaren hurrengo egunean, mugarrien itzulerari ekin genion. Aurten aspaldiko partez ibilbide osoa egiteko asmoa dugu, hiru irteeretan. Lehenbizikoan 15 lagunek parte hartu genuen eta hasieran ateri bazegoen ere, Kornietara igo ondoren lainoa, langarra eta azkenean xirimiria nagusitu ziren. Dena den, udaberriko kolore berde politak ageri ziren eta jendea gustura eta ongi pasa genuen».





Leitzako mugarriak ezagutzeko mendi irteera berriak antolatuko dituzte aurrerantzean. HITZA





Goizueta, Leitza, Arano eta Aresoko haur eta gurasoak X. Eskolen Arteko Topaketa egingo dute Areson hilaren 16ean. Bestalde, Areson Liburuaren Eguna ospatu zuten Izaskun Mujikarekin. HITZA

# Areson Eskolen Arteko Topaketa hilaren 16ean

A. IMAZ

Haur, Guraso eta Eskolen Arteko X. Topaketa Areson egingo dute hilaren 16ean. Bertan Leitza, Arano, Goizueta eta Aresoko haur eta gurasoak bilduko dira.

X. Topaketa herri hauetako Guraso Elkarteek eta Mankomunitateko Gizarte Zerbitzuek antolatu dute.

Iaz denak Leitzan elkartu ziren eta aurten Areson bilduko dira. Urtero bezala goizean eta arratsaldean hamaika ekitaldi burutuko dituzte jaiarekin bat egiten duten guztien artean.

**Liburuaren Nazioarteko Eguna**
Liburuaren egunean, apirilaren 23an, Aresoko eskolan Izaskun Mujika ipuin kontalaria egon zen. Bere maleta ondoan zuela sei ipuin kontatu zizkien gerturatu zirenei: «benetan oso atsegina izan zen emanaldia».

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO **hitza** .info

**2009-04-30 Eguraldia**

| Goiza | Arratsaldea | Tenperatura | Bihar | |
|---|---|---|---|---|
| | | 14° | GOIZA | EURIA |
| | | 10° | ARRATS. | EURIA |
| | | | BEROENA | 15° |
| | | | HOTZENA | 5° |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.
**Lege Gordailua:** SS-0398-03
**Zuzendaria:** Noelia Lataburu
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldekohitza.info.
**Webgunea:** www.tolosaldekohitza.info

**Zuzendariordea:** Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean_publi@tolosaldekohitza.info.
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldekohitza.info.
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo @tolosaldekohitza.info.
**Anoetaldea:** 687 410 022. anoetaldea @tolosaldekohitza.info.
**Ibarraldea:** 687 410 032. ibarraldea @tolosaldekohitza.info.
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea @tolosaldekohitza.info.
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea @tolosaldekohitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:** BERTAKO HEDABIDEAK eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile | **Hitza-k Bai Euskarari**

**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil | Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Antzerkia
▪ **Villabona.** *Lehiaketa* antzezlana Trapu Zaharrak taldeak aurkeztuko du Malkar plazan (Gurea zinemaren ondoan dagoena) 11:00etan. DBHko ikasleei zuzenduta dago bereziki, ekitaldia.

### Deialdiak
▪ **Tolosa.** Asis sareak antolatutako hileroko seigarren otoitz topaketa Santa Klara komentuan 19:30ean.
▪ **Tolosa.** Medikuntza txinatar tradizionalaren onurei buruzko hitzaldia Kutxak lagunduta, Kultur Etxeko areto nagusian 19:00etan.

### Ipuin kontaketak
▪ **Albiztur.** Idoia Sanchezen ipuin kontaketa, liburutegian 18:30ean.
▪ **Bidegoian.** Idoia Sanchez ipuin kontari ariko da eskolan 17:15ean.

### Jaiak
▪ **Orexa.** Oilarraren jaitsiarekin emango zaie hasiera Santa Kruz festeei 21:30ean eta 22:30etan kantaldia Bikustik taldearekin.

### Musika
▪ **Tolosa.** Iverland eta Evil insight taldeak Bonberenean, 22:30ean.
▪ **Tolosa.** Angel Unzu kitarrajolearen kontzertua Aranburu Jauregian 20:00etan.

### Zinema
▪ **Tolosa.** Ari Folmanen *Vals con Bashir* filma emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean, zine-forumean.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK
▪ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 36 49.
▪ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarien adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

# Senegalgo bizimodua gertutik



**SENEGAL** ● «Begiradak arima izoztu eta eskuzabaltasunak bihotza urratzen dizun lurralde honetan, deskubritzeko gauza asko geratzen dela konturatzen zara, eta are gehiago ikasteko». JULEN JAUREGI (VILLABONA)



**SENEGAL** ● «Saint Louis: Kalean topatu genituen haur hauek arpegia margotuta eta jantzi berezi horiekin *lion faux*-era jolasten (harrapaketa moduko zerbait). Goiz guztia pasatu zuten txabolatxoa prestatzen eta arratsalde guztian korrika ibili ziren jolasean. Play Station-az behin ere hitz egiten entzun ez duten haur hauek imaginazioa askoz garatuagoa dute!». JULIAN JAUREGI (VILLABONA)



**SENEGAL** ● «Dakar: Eguneroko bizimodua aurrera ateratzea hain gogorra den lurraldean, zein era arrunt eta sinplean lan egiten duten konturatzen gara. Kaleetan josteko makinen hotsak nonahi entzungo ditugu. Argazkian, Djibi jostuna nire jantziari azken ukituak ematen». LUISA MONTECELO (ASTEASU)



**SENEGAL** ● «Dakar (Senegal): Nahaspilaren hiria, kolorearena, bicis eta mugimenduz betea eta kaleak beti jendez gainezka. Etxeetan, aldiz, emakumeak beti gogor lanean, beti eder eta beti irrifartsu». MARIA JESUS LUSARRETA (VILLABONA)

## A Agurrak

agurrak
urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

